



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

V. legegintzaldia

Iruña, 2003ko urtarrilaren 17a

3. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak, eta Parlamentuko informazioa:**

—Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2000ko ekitaldiko, Kontuen Ganbarak egina  
(2. or.).

**G Saila:****TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA****Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko apirilaren 29an eginiko bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarak eginiko Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2000ko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea.

Iruñean, 2002ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

**Zizur Nagusiko Udalari buruzko fiskalizazio-txostena, 2000ko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina****AURKIBIDEA**

- I. Sarrera (3. or.).
- II. Helburua (3. or.).
- III. Norainokoa (3. or.).
- IV. Iritzia (4. or.).
  - IV.1. 2002ko aurrekontuaren likidazioari dagokionez (4. or.).
  - IV.2. Ondare egoeraren azalpena (4. or.).
  - IV.3. Legezketasuna (4. or.).
  - IV.4. Finantza-egoera 2000ko abenduaren 31n (4. or.).
  - IV.5. Kontuen Ganbararen gomendioen jarraipena (4. or.).
  - IV.6. Erakunde autonomoak (4. or.).
  - IV.7. Ondorio orokorra (4. or.).
- V. Finantzen egoera-orriak (6. or.).
  - V.1. Zizur Nagusiko Udala (6. or.).
  - V.2. Erakunde autonomoak (9. or.).
- VI. Zizur Nagusiko Udalari buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (10. or.).
  - V.1. Aurrekontuaren betetzearen inguruko iruzkin nagusiak (10. or.).

VI.2. 2002ko abenduaren 31ko finantza-egoera (11. or.).

VI.3. Langileria-gastuak (12. or.).

VI.4. Ondasun eta zerbitzuetako gastu arruntak (12. or.).

VI.5. Transferentzia arruntak (14. or.).

VI.6. Inbertsioak (14. or.).

VI.7. Zuzeneko eta zeharkako zergen ondoriozko dirusarrerak (14. or.).

VI.8. Tasak eta bestelako dirusarrerak (15. or.).

VI.9. Dirusarrerak, transferentzia arruntak (16. or.).

VI.10. Ondare dirusarrerak (16. or.).

VI.11. Ibilgetua (16. or.).

VI.12. Zordunak (17. or.).

VI.13. Finantza kontuak (17. or.).

VI.14. Epe laburreko zorrak (17. or.).

VI.15. Aplikatzeko dauden kontusailak (17. or.).

VI.16. Hirigintza (17. or.).

VII. Erakunde autonomoei buruzko iruzkinak, ondorioak eta gomendioak (18. or.).

**Eranskinak**

I. Udalaren eta haren erakunde autonomoen organigrama 2000ko abenduaren 31n (20. or.).

II. Erabaltako adierazleen definizioa (21. or.).

Zizur Nagusiko Alkateak aurkezturiko alegazioak (22. or.).

Zizur Nagusiko Alkateak aurkeztu dituen alegazioei Kontu Ganbarak eman dien erantzuna (22. or.).

## I. SARRERA

Zizur Nagusiko Udala Iruñerrian dago, eta 2000ko urtarrilaren 1ean 10.686 biztanle inguru ditu erroldatuta.

Gainera, bere jarduera burutzeko, honako erakunde autonomo hauek dauzka:

- Musika Eskola.
- Kirol Patronatua
- Kultur Patronatua

Bestalde, Iruñerriko Mankomunitatearen barruan ere badago, zeinak bere gain hartzen baititu hala uraren ziklo integrala nola hiri-hondakin solidoen kudeaketa eta tratamendua. 1999an, bidaiarien garraioaren arloko eskumenak ere bereganatu zituen mankomunitateak.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2000ko zifrarik garrantzitsuenak honako taula honetan adierazten dira:

Entitatea	Aitorturiko obligazioak	Aitorturiko eskubideak	Langileak 00-12-31n
Udala	913,7	767,9	57
Musika Eskola	45,2	45,7	13
Kirol Patronatua	40,2	45,4	- (1)
Kultur Patronatua	45,7	51,3	- (1)

(1) Udaleko langileetatik sei patronatu horietan aritzen dira lanean, nahiz eta horiei formalki atxikirik ez egon.

## II. HELBURUA

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeari, Nafarroako toki ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeari eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari jarraituz, Zizur Nagusiko Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko kudeaketa ekonomiko-finantzarioaren fiskalizazioa egin dugu. Halaber, ekitaldi horretako gastu eta dirusarrera aurrekontuen betetzea ere fiskalizatu dugu.

Fiskalizaturiko toki entitateari aplikatu beharreko araubide juridikoa, funtsean, lehen aipaturiko lege horiek, Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen estatutuak eta administrazio-kontratazioa erregulatzen duten arauak osatzen dute; baita Nafarroako toki enteei modu orokorrean aplikatu beharreko gairontzeko araudiak ere.

Kontabilitate eta aurrekontu gaitako araubide juridikoa Nafarroako toki administrazioarentzako aurrekontu eta gastu publikoari, aurrekontu egitu-

rari eta kontabilitateari buruzko 1998ko irailaren 21eko 270, 271 eta 272 foru dekretuetan ezartzen da. Horien aplikazioa nahitaezkoa da 2000ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Txostenak honako puntu hauei buruzko gure iritzia agertzea du helburu:

a) Zizur Nagusiko Udalaren eta bere erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko aurrekontuaren garapena eta betetzea.

b) 2000ko abenduaren 31ko ondare-egoeraren agerpena, aplikatzekoak diren kontabilitate-printzipioei jarraituz.

c) Jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkotasun-printzipioari lotua egon ote den.

d) Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2000ko abenduaren 31ko finantza-egoera.

e) Kontuen Ganbara honek azken fiskalizazio txostenean eman zituen gomendioak noraino bete diren.

## III. NORAINOKOA

Bere jarduketa-programari jarraituz, Kontuen Ganbarak Zizur Nagusiko Udalaren (hemendik aurrera, Udala) eta bere erakunde autonomoen 2000ko ekitaldiko fiskalizazioa egin du.

Udalak kontabilitate publikoari buruzko plan orokorra ezarrita dauka. Erakunde autonomoek ere badute kontabilitate orokorra, udalean ezarritako kontabilitate-ereduaren aplikazio sinplifikatu bati esker.

Beraz, eginiko lanak hauxe izan du arretagai: dirusarrera eta gastuei buruzko atal ekonomikoak eta ondare-masak berrikustea, antolamenduari, kontabilitateari eta barne-kontrolari dagozkion hainbat puntu aztertuz.

Hirigintzari dagokionez, gure lanaren arretagai nagusia plan orokorraren betetzeari buruzko azterketa egitea izan da, haren alaketak aztertuz eta aurreikuspenak zein neurritan bete diren ikerituz.

Lana burutzeko, Espainiako Estatuko Kanpo Kontrolako Organoak Koordinatzeko Batzordeak onetsitako fiskalizazio printzipioei eta arauiei men egin diegu, eta beharrezkotzat jo ditugun frogaguztiak aplikatu ditugu, baldintzen eta aurretik Udalarari bidali genion galdetegian azaldu diren arazo arabera.

Udalaren antolamendua, barne kontrola, eraginkortasuna eta efizientzia hobetzeko beharrezko jo ditugun iruzkin eta gomendioak ere biltzen ditu txostenak.

Azterketa lana 2001eko azaroan eta abenduan eta 2002ko urtarrilean egin da.

Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

#### IV. IRITZIA

Buruturiko fiskalizazioaren esparruan, Zizur Nagusiko Udaleko eta haren erakunde autonomoetako 2000ko ekitaldiko egoera-orri finantzarioak aztertu ditugu. Egoera-orri horiek Udalaren ardurapean burutu ziren; laburtuta bildu ditugu txosten honetako V. atalean.

Egindako azterketaren emaitza gisa, ondoko iritzia eman behar dugu:

##### IV.1. 2000ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIO-ARI DAGOKIONEZ

2000ko aurrekontuaren likidazio egoerak nahiko ongi agertzen du fiskalizaturiko ekitaldian udalak egindako eragiketen multzoa.

Nolanahi ere adierazi behar dugu likidazio horrek patronatuei dagozkien gastuak -125 milioi- eta dirusarrerak -101 milioi- ere biltzen dituela.

##### IV.2. ONDARE EGOERAREN AZALPENA.

Ez dago ondarearen gaineko kontabilitaterik eta horren ondorioz, egoeraren balantzea kontabilitatetik kanpo kalkulatu da eta aurrekontuko kontabilitatearen aldean desberdina da zenbait puntutan.

Ibilgetua, aktiboaren kontusail garrantzitsuena, 1995ean egin zen eta gaurkotzeko dagoen inbentario batean dago oinarriturik.

Gauzak horrela, ez dugu iritzirik ematerik balantzearen saldoen arrazoizkotasunari buruz 2000ko abenduaren 31n.

##### IV.3. LEGEZKOTASUNA

Oro har, Zizur Nagusiko Udalaren jarduera ekonomiko-finantzarioa legezkontasun-printzipioari jarraituz burutzen da.

Halere, azpimarratu behar dugu kontu-hartzailerik ez dela izan, fiskalizaturiko ekitaldian Zizur Nagusiko Udalak ez baitzuen kontu-hartzailerik.

##### IV.4. FINANTZA-EGOERA 2000ko ABENDUAREN 31n.

2000ko ekitaldiak 145,7 milioiko defizita du aurrekontuan, eta zorpetze muga, azken ekitaldian, ehuneko 11raino jaitsi da. Dena dela, datu horiekin ere, Zizurko Udalak 193,6 milioi pezetako diruzaintzako gerakina du eta ez du zorrik.

Aurreko datuek agerian uzten dute 2000ko ekitaldiaren amaierako finantza egoera nahiko ona dela. Halere, arreta eman behar zaie gastu arruntei, haien hazkunde erritmoa dirusarrerara arruntena baino biziagoa baita.

##### IV.5. KONTUEN GANBARAREN GOMENDIOEN JARRAIPENA

Esan dezakegu Zizur Nagusiko Udala pixkanaka ari dela ezartzen aurreko fiskalizazio txostenetan eginiko gomendioak.

Halere, aurrekontuko eta egoeraren balantzeko gehigarrietan beste gomendio batzuk eginen ditugu udalaren arloen kontrola eta kudeaketa hobetzeko.

##### IV.6. ERAKUNDE AUTONOMOAK.

Udalaren hiru erakunde autonomoek (musika eskola, kirol patronatua eta kultur patronatua) ez dituzte osotara biltzen kasuan kasuko jarduerari dagozkion dirusarrerak eta gastuak, IV.1 epigrafean esan dugun bezala.

Hiru patronatuek hobetu behar dituzte beren aurrekontuen kontrol eta kudeaketa prozedurak, eta Udalak horien kontu-hartzailerik eta babes lana bete behar du, gure txostenaren VII. idatzatian eginiko gomendioei jarraikiz.

##### IV.7. ONDORIO OROKORRA

Laburtuz, eta ondorio nagusi gisa, esan genazake Zizur Nagusiko Udalak modu egokian kudeatzen dituela aurrekontuak, administrazio-ikuspegi batetik begiraturik. Hala ere, honako hau du beharrezko:

- Antolamenduari kontu-hartzailearen lanpostua, hemendik gutxira beteko dena, gehitzea.
- Haren kontabilitatea plan orokorrera moldatzea.
- Txostenaren muinean eginiko gomendioak gauzatzea udalaren arloen kontrola eta kudeaketa, baita patronatuena ere, hobetzeko; horretarako funtsezkoa da kontu-hartzaile bat hartzea.

- Erakunde autonomoei eusteko komenigarritasuna aztertzea eta egungo izaera juridikoa gorde zera, haien eginkizunak betetzeko behar beste bitarteko eta autonomiaz hornitzea.

- Urteko oroit-idazkia prestatzea, udalaren finantza egoerei eransteko, horien gaineko azalpen eta azterketekin.

## V. FINANTZEN EGOERA-ORRIAK

## V.1. ZIZUR NAGUSIKO UDALA

Zizurko Udalaren aurrekontuaren betetzea 00/12/31n  
(Udala bakarrik. Erakunde autonomo/patronatuen aurrekontuekin sendotu gabe)

## 2000ko dirusarreraren aurrekontuaren betetzea

Kap.	Hasierako aurrekontua	Aldaketa	Behin betiko aurrekontua	Aitorritiko eskubideak	Euroak	Egituraren ehunekoa	Kobratutakoa	Kobrantezen ehunekoa	Kobratzeko dagoena
Zerga zuzenak	164.950.000	33.091.219	198.041.219	198.020.211	1.190.125	% 26	163.155.738	% 82	34.864.473
Zeharkako zergak	100.000.000	0	100.000.000	28.499.564	171.286	% 4	23.301.103	% 82	5.198.461
Tasak eta bestelako dirusarrerak.	117.750.000	23.054.425	140.804.425	137.146.846	824.269	% 18	133.744.007	% 98	3.402.839
Transferentzia arruntak	383.130.000	16.460.417	399.590.417	397.190.102	2.387.161	% 52	385.658.755	% 97	11.531.347
Ondare dirusarrerak.	3.625.000	2.671.925	6.296.925	6.309.971	37.924	% 1	6.151.205	% 97	158.766
Inbertsio errealeen besterentzea	0	0	0	0	0	% 0	0	% 0	0
Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0	% 0	0	% 0	0
Finantza-aktiboen aldaketa	1.500.000	290.776.950	292.276.950	774.986	4.658	% 0	774.986	% 100	0
Finantza-pasiboen aldaketak.	0	0	0	0	0	% 0	0	% 0	0
<b>DIRUSARRERAK, GUZTIRA</b>	<b>770.955.000</b>	<b>366.054.936</b>	<b>1.137.009.936</b>	<b>767.941.680</b>	<b>4.615.422</b>	<b>% 100</b>	<b>712.785.794</b>	<b>% 92,8</b>	<b>55.155.886</b>

Oharra: 8. kapituluari, 1999ko diruzaintzako gerakina sartu zen, 289.776.950 pezetakoa, zenbait kreditu sartzetarako erabilia.

## 2000ko gastuen aurrekontuaren betetzea

Kap.	Hasierako aurrekontua	Aldaketa	Behin betiko aurrekontua	Aitorritiko betebeharrak	Euroak	Egituraren ehunekoa	Ordaindutakoa	Ordainketen ehunekoa	Ordaintzeko dagoena
Langileen lansariak	291.520.000	3.540.542	295.060.542	278.295.998	1.672.593	% 30	277.956.862	% 100	339.136
Ondasun arruntak eta zerb. erostea	320.147.000	7.215.267	327.362.267	306.362.801	1.841.278	% 34	276.081.719	% 90	30.281.082
Interesak	100.000	0	100.000	951	6	% 0	951	% 100	0
Transferentzia arruntak	92.450.000	8.049.017	100.499.017	98.637.254	592.822	% 11	86.817.695	% 88	11.819.559
Inbertsio errealak.	65.238.000	281.772.124	347.010.124	227.822.218	1.369.239	% 25	150.547.589	% 66	77.274.629
Kapital-transferentziak	0	0	0	0	0	% 0	0	% 0	0
Finantza-aktiboen aldaketa	1.500.000	5.000.000	6.500.000	2.558.334	15.376	% 0	2.558.334	% 100	0
Finantza-pasiboen aldaketak.	0	0	0	0	0	% 0	0	% 0	0
<b>GASTUAK, GUZTIRA</b>	<b>770.955.000</b>	<b>305.576.950</b>	<b>1.076.531.950</b>	<b>913.677.556</b>	<b>5.491.313</b>	<b>% 100</b>	<b>793.963.150</b>	<b>% 87</b>	<b>119.714.406</b>

Iturria: 2000ko kontuen likidazioa  
Aurrekontuetako defizita

-145.735.928

## Diruzaintzako gerakina 2000-12-31n

(pezetak, milakoetan)

Kontzeptua	Zenbatek.	Saldoa
I. (+) Ekitaldiaren amaieran kobratzeko dauden zordunak		117.863
Dirusarrerren aurrekontukoa. Aurrekontu arrunta	55.155	
Dirusarrerren aurrekontukoa. Aurrekontu itxiak	78.398	
Merkataritzako eragiketak	-	
Beste ente publiko batzuen baliabideetakoak	-	
Aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak	8.711	
Ken kobratzeko zailak diren saldoak	-24.401	
Ken egindako dirusarrerak, behin betikoz aplikatzeko daudena	-	
2. (-) Ekitaldiaren amaieran ordaintzeko dauden hartzekodunak		-143.875
Gastuen aurrekontukoa. Aurrekontu arrunta	-119.714	
Gastuen aurrekontukoa. Aurrekontu itxiak	-3.948	
Dirusarrerren aurrekontukoa.	-	
Merkataritzako eragiketakoak	-	
Beste ente publiko batzuen baliabideetakoak	-	
Aurrekontuz kanpoko beste eragiketa batzuetakoak	-20.212	
Ken egindako ordainketak, behin betikoz aplikatzeko daudenak	-	
3. (+) Diruzaintzako funts likidoak 00-12-31n		219.708
4. Finantzaketa atxikia duten gastuei atxikitako diruzaintzako gerakina		-
5. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina (1+2+3+4)		193.696
Diruzaintzako gerakina, guztira (1-2+3) edo (4+5+6)		193.696

## Balantzea 2000-12-31n (pezetatan)

AKTIBOA	1999	2000	PASIBOA	1999	2000
Lurzoruak eta ondasun naturalak	-759.147.518	903.694.814	Ondarea	1.211.853.338	1.211.853.338
Eraikinak	2.187.588.285	2.380.202.845	Lagatako ondarea	-30.974.470	+30.974.470
Makinak, instalazioak eta tresneria	65.347.968	68.231.108			
Garraio-gailuak	13.602.730	20.509.691	<b>ONDAREA ETA ERRESERBAK</b>	<b>1.180.878.868</b>	<b>1.242.827.808</b>
Altzariak	114.199.897	119.149.290			
Informazio prozesuetarako ekipoa	15.368.107	21.223.391	Jasotako kapital-dirulaguntzak	462.152.290	462.152.290
Instalazio konplexu espezializatuak	4.034.123	5.534.725			
<b>Ibilgetu materiala</b>	<b>1.640.993.592</b>	<b>3.518.545.864</b>	<b>KAPITAL-DIRULAGUNTZAK</b>	<b>462.152.290</b>	<b>462.152.290</b>
Jabego intelektualak	23.702.499		Jasotako maileguak	365.806	370.220
Bestelako ibilgetu ez-materiala	1.736.618	1.736.618			
<b>Ibilgetu ez-materiala</b>	<b>25.439.117</b>	<b>1.736.618</b>	<b>EPE LUZEKO ZORRAK</b>	<b>365.806</b>	<b>370.220</b>
Lurzoruak eta ondasun naturalak	188.383.550	190.698.940	Betebeharretako hartzekodunak	55.812.926	123.711.219
Erabilera orokorreko azpieg. eta ondas.	41.986.949	52.783.837	Agindutako ordainketen hartzekodunak	195.449.755	
<b>Erabilera orokorreko azpiegiturak eta ondasunetako inbertsioak</b>	<b>230.370.499</b>	<b>243.482.777</b>	Entitate publikoak	7.654.940	9.602.844
			Aurrekontuz kanpoko beste hartzekodun batzuk	9.401.437	22.221.776
Kotizazio ofizialik gabeko akzioak	70.000	70.000			
<b>Finantza ibilgetua</b>	<b>70.000</b>	<b>70.000</b>	<b>EPE LABURREKO ZORRA</b>	<b>268.319.058</b>	<b>155.535.839</b>
<b>IBILGETUA</b>	<b>1.896.873.208</b>	<b>3.763.835.259</b>	Aplikatzeko dauden dirusarrerak	2.927.739	
			Aplikatzeko dauden beste kontusail batzuk	4.411.260	1.385.601.445
Aitorturiko eskubideen zordunak	306.804.496	133.553.619	<b>APLIKATZEKO DAUDEN KONTUSAILAK</b>	<b>7.338.999</b>	<b>1.385.601.445</b>
Entitate publikoak	480.193	480.193			
Aurrekontuz kanpoko beste zordun batzuk	3.077.433	9.829.570	Ekitaldiaren emaitza	558.796.174	882.430.825
<b>ZORDUNAK</b>	<b>310.362.122</b>	<b>143.863.382</b>	<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>558.796.174</b>	<b>882.430.825</b>
Aplikatzeko dauden kontusailak	1.414.554	1.433.529			
Bankuak eta kreditu-entitateak	269.201.311	219.786.257			
<b>FINANTZA KONTUAK</b>	<b>270.615.865</b>	<b>221.219.786</b>			
<b>AKTIBOA, GUZTIRA</b>	<b>2.477.851.195</b>	<b>4.128.918.427</b>	<b>PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>2.477.851.195</b>	<b>4.128.918.427</b>
Abalak eta bermeak	519.837.456	472.125.237	Abalak gordailuan	519.837.456	472.125.237
<b>KONTROL P. ETA ORDENEKO KONT.</b>	<b>519.837.456</b>	<b>472.125.237</b>	<b>KONTROL P. ETA ORDENEKO KONT.</b>	<b>519.837.456</b>	<b>472.125.237</b>



## V.2. ERAKUNDE AUTONOMOAK

## Musika Patronatuaren aurrekontuaren betetzea

## Dirusarrerak

	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko eskubideak	Kobrantzak	Aitorturiko eskubideen % / Guztira
Matrikulak eta ordainagiriak	19.172.398	20.420.502	20.340.502	45
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza	9.340.211	8.105.770	7.778.280	18
Udalaren dirulaguntza	17.000.000	17.000.000	17.000.000	37
Bankuko interesak	100.000	159.499	159.499	0
<b>Dirusarrerak guztira</b>	<b>45.612.609</b>	<b>45.685.771</b>	<b>45.278.281</b>	<b>100</b>

## Gastuak

	Behin betiko kreditua	Aitortutako obligazioak	Ordainketak	Aitortutako betebeharren % Guztizk. gainean
Langileria-gastuak	43.408.609	43.094.486	42.221.796	95
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	1.469.000	1.397.800	1.397.800	3
Finantza-gastuak	5.000	0	0	
Transferentzia arruntak	400.000	362.050	362.050	1
Inbertsioak	400.000	379.360	379.360	1
<b>Gastuak guztira</b>	<b>45.682.609</b>	<b>45.233.696</b>	<b>44.361.006</b>	<b>100</b>

## Kirol Patronatuaren aurrekontuaren betetzea

## Dirusarrerak

	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko eskubideak	Kobrantzak	Aitorturiko eskubideen % / Guztira
Kirol jardueren kuotak	14.580.000	18.196.800	18.139.300	40,1
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntza	1.677.000	3.204.915	2.221.875	7
Zizurko Udalaren dirulaguntza	23.450.000	23.450.000	23.450.000	51,6
Beste dirulaguntza batzuk.	812.100	324.000	324.000	0,7
Finantza-dirusarrerak	110.000	246.556	246.556	0,6
<b>Dirusarrerak guztira</b>	<b>40.629.100</b>	<b>45.422.271</b>	<b>44.381.731</b>	<b>100</b>

## Gastuak

	Behin betiko kreditua	Aitortutako obligazioak	Ordainketak	Aitortutako betebeharren % Guztizk. gainean
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	36.537.000	35.693.306	32.778.626	89
Finantza-gastuak	1.000	107.845	107.845	11
Transferentzia arruntak	4.091.100	4.436.826	3.946.826	0
<b>Gastuak guztira</b>	<b>40.629.100</b>	<b>40.237.977</b>	<b>36.833.297</b>	<b>100</b>

## Kultur Patronatuaren aurrekontuaren betetzea

## Dirusarrerak

	Behin betiko aurrekontua	Aitorturiko eskubideak	Kobrantzak	Aitorturiko eskubideen % / Guztira
Kultur tailerren kuotak	6.567.450	6.963.350	6.958.700	14
Antzoki eta zinemako sarrerak	2.103.000	3.642.350	3.500.950	7
Produktuen salmenta	5.000	0	0	0
Iragarkiak argitalpenetan	1.520.000	1.548.000	1.548.000	3
Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzak	3.300.000	3.733.702	2.015.440	7
Zizurko Udalaren dirulaguntza	35.300.000	35.300.000	35.300.000	69
Enpresa pribatuaren dirulaguntzak	25.000	35.000	35.000	0
Banku eta kutxen interesak	10.000	111.819	111.819	0
<b>Dirusarrerak guztira</b>	<b>48.830.450</b>	<b>51.334.221</b>	<b>49.379.909</b>	<b>100</b>

## Gastuak

	Behin betiko kreditua	Aitortutako obligazioak	Ordainketak	Aitortutako betebeharren % Guztizk. gainean
Langileria-gastuak	125.000	84.365	84.365	0
Ondasun arruntak eta zerbitzuak erostea	44.604.450	42.443.049	38.912.324	93
Finantza-gastuak	10.000	75.193	75.193	0
Transferentzia arruntak	3.591.000	3.087.238	2.680.053	7
<b>Gastuak guztira</b>	<b>48.330.450</b>	<b>45.689.845</b>	<b>41.751.935</b>	<b>100</b>

**VI. ZIZUR NAGUSIKO UDALARI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK****VI.I. AURREKONTUAREN BETETZEAREN INGURUKO IRUZKIN NAGUSIAK**

## GASTUEN AURREKONTUAREN BETETZEA

2000ko ekitaldiko gastuen aurrekontuaren betetzeak 913,7 milioi pezeta egiten du, hau da, 1.076,5 milioi pezetako behin betiko aurrekontuaren ehuneko 84,9koa.

Aurreko ekitaldiarekin alderaturik, betetzea 194,1 milioi jaitxi da, ehuneko 17,5 alegia, gastuen betetzeak 1.107,8 milioi pezeta egin zuelako. Jaitsieraren arrazoia da, nagusiki, inbertsioen betetzea, 1999an 541 milioikoa izatetik 2000. urtean 228 milioikoa izatera pasatu baitzen.

## DIRUSARREREN AURREKONTUAREN BETETZEA

Dirusarreraren aurrekontuaren betetzeari dagokionez, eskubideen likidazioak 767,9 milioi pezeta

egiten du eta 1.137 milioi aurrekontuaren gainean betetze maila ehuneko 67,5koa da.

Aurreko ekitaldian dirusarreraren betetzea 897,3 milioikoa izan zenez, jaitsiara 129,5 milioikoa izan da, ehuneko 14,4koa, alegia. Jaitsieraren arrazoi nagusia da 2000. urtean ez zela izan kapital transferentziek eragindako dirusarrerarik -1999an 161 milioikoa izan ziren-, ez eta lurzatiak beste-entzearen ondorioz ere -44,1 milioi 1999an-.

Gastu eta dirusarreraren betetze horrekin, 2000ko ekitaldiko aurrekontua 145,7 milioi pezetako defizitarekin itxi da.

## AURREKONTUKO ALDAKETAK

Dirusarreraren aurrekontuko aldaketek 366 milioi pezeta egiten dute (kapituluz kapitulu zehazturik ikus daiteke V. epigrafean). Horietatik, 289,7 milioi 1999ko diruzaintzako gerakina gehitzearen ondorioz, kreditu sartze batzuk finantzatzeko.

Bestalde, gastuen aurrekontuaren aldaketek 305,5 milioi pezeta egiten dute, gehienak inbertsioen kapituluan (281,7 milioi), batez ere udal-terako kreditua gaitzearren (241,3 milioi).

## VI.2. 2000ko ABENDUAREN 31ko FINANTZA-EGOERA

2000ko ekitaldian, Udalak honako ratio edo adierazleak dauzka, 1999ko datuekin konparatuta (haren menpeko erakunde autonomoak kontuan hartu gabe):

Adierazlerik garrantzitsuenak (Udala)	2000	1999
Biztanle kopurua	10.686	10.077
Aurrekontu-superabita/defizita (milioiak)	-146	-210
Dirusarrerak biztanleko(pezetak)	71.864	89.051
Gastuak biztanleko (pezetak)	85.502	109.937
Finantza-zama biztanleko (pezetatan)	0	0
Zerga dirusarrerak biztanleko (pezetatan)	34.032	32.154
Kobrانتzen betetzea (ehunekotan)	% 92,8	% 80,6
Ordainketen betetzea (ehunekotan)	% 86,9	% 77,7
Zorpetze-maila	% 0,0	% 0,0
Zorpetze-muga (ehunekotan)	% 10,9	% 18,1
Aurrezki garbia (ehunekotan)	% 10,9	% 18,1
Langileria-indizea (ehunekotan)	% 30,5	% 22,0
Inbertsio-indizea (ehunekotan)	% 24,9	% 48,9
Mendekotasuna, 4 eta 7. kap., (ehunekotan)	% 51,7	% 58,0
Gastu arruntak biztanleko (pezetatan)	63.943	56.231
Dirusarrera arruntak biztanleko (pezetatan)	71.792	68.638

Azterketa horretatik ondokoa azpimarratu behar dugu:

- 2000ko ekitaldian 145,7 milioi pezetakoa da aurrekontu-defizita; aurreko ekitaldikoa, berriz, defizita 210 milioikoa izan zen.

- Dirusarrerak, biztanleko, 71.864 pezetakoak dira, eta aurreko ekitaldian, berriz, 89.051 pezetakoak. Gastuak, biztanleko, 85.502 pezetako zenbaterako jaitsi ziren halaber, eta aurreko ekitaldian 109.937 pezeta egin zuten. Jaitziera horren arrazoiak dira, batetik, biztanleen kopuruak gora egin izana (609 biztanle gehiago) eta, guztira, dirusarreraren eta gastuen kopurua jaitsi izana,

batez ere inbertsio gastuak eta transferentzia arruntek eragindako dirusarrerak jaitsi zirelako.

- Zerga dirusarrerak biztanleko 34.032 pezetakoak dira, eta 1999an, aldiz, 32.154 pezetakoak izan ziren. Ehuneko 5,8ko igoera, oro har, baina kapituluetan gertaturiko aldaketa adierazgarriek eraginda. Zuzeneko zergek ia ehuneko 34ko igoera izan dute; zeharkako zergek (ICIO) ehuneko 70eko jaitziera izan dute eta tasa eta prezio publikoak ehuneko 67 igo dira.

- Zorpetze maila eta finantza zama biztanleko zero da. Zizurko Udalak ez du mailegurik eskaturik inongo finantza entitatetan.

- Aitzitik, zorpetze muga jaitsi egin da -orain ehuneko 10,9koa da eta aurreko ekitaldian ehuneko 18,1ekoa zen- gastu arruntak dirusarrera arruntak baino gehiago igo direlako. Ratio hori jaitzen joan dela ikusten da (ehuneko 29 1997an; ehuneko 18,1 1999an eta ehuneko 10,9 2000n), etorkizunean inbertsioak egiteko aurrezki garbiak sortzeko gaitasun eskasagoaren sintoma izan daitekeena.

- Dirulaguntzekiko mendekotasuna handia da 2000ko ekitaldian. Udalaren baliabideen ehuneko 51,7 dirulaguntza arruntetik heldu da, baina 1999an ehuneko 58koa zen (ehuneko 40 arruntak eta ehuneko 18 kapitalekoak).

- 2000ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, honakoa adieraziko dugu (pezetak, milioika):

Adierazleak	2000	1999	1997
Diruzaintza-gerakina	194	290	349
Epe luzerako zorra	0	0	1

Esan nahi baita, Zizur Nagusiko Udalak diruzaintzako gerakin altua dauka (194 milioi) eta epe luzerako zorrik ez; horri esker etorkizunean inbertsioak egiteko finantza baliabidea du, eta horrek finantza egoera ona uzten du agerian.

- Azkenik, ondoko taulan, Zizur Nagusiko 2000ko informazioa eta Nafarroako biztanle-tarte bereko gainontzeko udaletako 1999ko informazioa alderaturik agertzen dira

	10.000tik 50.000 biztanlera bitarteko udalak (erakunde autonomoak barne)	Zizur Nagusia (erakunde autonomoak barne)
	1999	2000
Gastu arrunta biztanleko (pezetatan)	79.888	76.181
Dirusarrera arruntak biztanleko (pezetatan)	102.279	84.841
Tributu dirusarrera (pezetatan)	49.413	38.783
Zorpetze-muga	21,8	10,9
Zorpetze-maila	5,43	0
Zorpetze ahalmena (aurrezki garbia)	16,4	10,9

Konparazio horren mugak gorabehera, hauxe nabarmendu behar da:

Zizur Nagusiko gastu eta dirusarrera arruntak biztanleko (erakunde autonomoak gehituta), ehuneko 5 eta ehuneko 18 txikiagoak dira, hurrenez hurren, eta ekartzen dituzten tributu dirusarrerak 10.000tik 50.000 biztanlera bitarteko udalen batez bestekoa baino ehuneko 21 txikiagoak dira.

Zorpetze muga nabarmen txikiagoa da batez bestekoa baino, baita zorpetze ahalmena edo aurrezki garbia ere. Aitzitik, zorpetze mailarik ez izatea egun, konparazioan nabarmentzen den aldeko datua da.

### VI.3. LANGILERIA-GASTUAK

Langileria-gastuen kapituluaren betetze maila 278 milioi pezetakoa da eta behin betiko aurrekontua 295 milioikoa, beraz betetze maila ehuneko 94,3koa. Udalaren aitorturiko betebeharren kopurua osoaren ehuneko 30 da.

Aurreko urtearekin alderaturik, 1. kapituluak ehuneko 14ko igoera izan du, batez ere udaleko langileen kopuruak gora egin duelako, baita, kasuren batean, haien lansariak ere.

Plantilla organikoak 70 lanpostu ditu: A mailako 3; B mailako 7; C mailako 4; D mailako 45 ta E mailako 11.

Plantilla organiko horretako 6 pertsona kultura eta kirol patronatuetan aritzen dira, eta 13 lanpostu huts daude: kontu-hartzaile 1, 5 administrari laguntzaile, etxezain 1; 4 albinte; gizarte laguntzaile 1 eta familia langile 1.

Adierazitakoaren arabera, 2000ko abenduaren 31n zerbitzuak ematen dituztenak 57 dira.

Lanpostu gehienak lan eskaintza publikoan daude sarturik dagoeneko, hemendik gutxira betetzeko lanpostu horiek.

Udalaren nominak kanpoko aholkularitza enpresa batek egiten ditu. Bestalde, udalak langileriaren antolamenduari buruzko azterlan bat eskatu du, amaitzeko dagoena.

Udalaren langileriaren arloan eginiko lanaren arabera, gastuen aurrekontuko zifrak arrazoizkoak direla iruditzen zaigu. Nolanahi ere, arlo honetako barne kontrola eta kudeaketa hobetzearren, hona gure gomendioak:

- *Nominak udaleko langileek egiteko aukera aztertzea.*
- *Langileen espedienteetan agiri bidez agerraztea kontratazioan publikitate eta lehiaren printzipioak bete direla, bai eta langileei dagozkien lansariak ere.*
- *Plantilla organikoan langileen lansari osagarri guztiak sartzeta.*
- *Behar bezala dokumentatzea langileen aseguruaren kontratazioak, hartzen dituzten bermeak eta aseguraturiko langileak.*
- *Kultura eta Kirol Patronatuetan zerbitzuan ari diren pertsonak patronatu horiei atxikitzea.*

### VI.4. ONDASUN ETA ZERBITZUETAKO GASTU ARRUNTAK

Aitorturiko betebeharrak 306,4 milioi pezetakoa dira, eta betetze maila %90 da.

Hona betetzea, kapituluz kapitulu zehazturik:

Kontzeptua	Aitorturikoa (pezetatan)	Guztizk. gain. %
Eraikinak eta bestelako eraikuntzak konpontzea	286.748	-
Instalazio teknikoak konpontzea	58.907.672	% 19
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	236.036.274	% 77
Hautetsien dietak eta joan-etorriak	11.132.107	% 4
Guztira	306.362.801	100

Aurreko ekitaldiari begiratu gero, kapituluak, osotara, ehuneko 24 egin du gora.

Epigrafe ekonomiko hori aztertzeko, lagin hau hartu dugu azterlantzat:

Kontzeptua	Zenbatekoa (pezetak, milioika)	Guztira, %
Energia elektrikoa	34,6	11
Toki garraioa	10,3	3
Informazio prozesuetako aholkularitza	5,4	2
Aholkularitza	3,7	1
Ikastetxe publikoaren garbiketa lanak	17,4	6
Kiroldegiaren jardunbidea	36,4	12
Hiriko garbiketa	24,8	8
Korporazioko kideentzako beste kalteordain batzuk	9,3	3
Guztira	142	46

- Energia elektrikoa: kontzeptu honen ehuneko 39 erakunde autonomoek egindako energia elektrikoaren gastua da, udalaren aurrekontuaren kargura kontabilizatua, 13,5 milioi pezetakoa.

- Toki garraioa: Iruñerriko Mankomunitateari toki garraioa dela-eta eginiko ordainketak, eskualdeko garraioaren planean ezarritako ekarpenen arabera.

- Hirigintzako aholkularitza: aitorturiko zenbatekoa (3,7 milioi) hiri antolamendurako plan orokorra erredaktatu duten arkitektoei zenbait txosten direla-eta egin beharreko ordainketarena da (3,7 milioi).

- Informatikako aholkularitza: ANIMSari ordaindutako zenbatekoa, 5,4 milioi pezeta, sozietatearen batzar orokorrak, urtero, bazkideentzat -tartean, Zizur Nagusiko Udala- onartzen dituen tarifen arabera.

- Ikastetxeen garbiketa: 97tik heldu den kontratua da, 2001eko ekitaldira arte luzatua eta zenbait aldaketa izan dituena.

- Kirol instalazioen jardunbidea: 36,4 milioikoa, kirol instalazioen mantentze lanek eragindako gastua ageri da bertan.

Kontratua 96/12/23an adjudikatu zen urtebetarako, beste lau urtetarako luzatzeko aukerarekin KPIren igoera (Nafarroa) ezarriarik. Kontratu horrek etengabeko aldaketak izan ditu, instalazio berriak erantsi eta jardunean hastearen ondorioz, eta horrek eragin du hasierako kontratuaren zenbatekoa handitzea, 14,5 milioi pezetakoa izatetik 1997an 41,4koa izatera 2000. urtean.

2000. urteko azken bi aldaketen kontra errekurtsioa aurkeztu zuen udaleko zinegotzi batek, eta ebazteko dago.

- Korporazioko kideentzako beste kalte-ordain batzuk: 9,3 milioikoa, alkatearen eta korporazioko kideen dietak eta taldeentzako dirua; horiei ez zaie PFEZaren atxikipenik egiten.

Arlo horretan egindako azterketatik, ondoko gomendioak egiten ditugu:

- *Arkitektoekiko harremana normalizatzea behar diren kontratuak eginez.*

- *Hasierako kontratuaren aldaketaren bat gertatuz gero fidantzeta behar diren doikuntzak normalizatu eta aztertzea.*

- *Kontratazio espedienteetan agerraraztea agiri bidez kontratu-hartzaileak hautatu eta adjudikazioa egiteko prozedura.*

#### VI.5. TRANSFERENTZIA ARRUNTAK

Kapitulu honetako aitorturiko betebeharrak 98,6 milioi jotzen dute eta beraz, % 98ko betetze maila aurkezten dute. Hona banaketa:

	Pezetak, milioika
Estatuari eta autonomia erkidegoei	75,7
Erakunde autonomoei	5,0
Mankomunitateei	0,6
Irabazi asmorik gabeko erakundeei	17,3
Guztira	98,6

Lehendabiziko kontzeptuak udalek erakunde autonomoei egindako ekarpenak hartzen ditu. Musika Patronatua: 17 milioi, kultura: 35,3 milioi eta kirol patronatua: 23,4 milioi.

Irabazi asmorik gabeko erakundeetan egozten dira etxebizitzak zaharberritu eta edertzeko laguntzak, 11,8 milioi, eta garapenerako dirulaguntzen ekarpenak, 5,5 milioi.

#### VI.6. INBERTSIOAK

Kapitulu honetan, aitorturiko betebeharrak 227,8 milioi pezeta egiten dute, eta betetze maila % 67koa da.

Kapituluaren ehuneko 76 udaletxe berria erakitzeak eragindakoa da: 2000ko ekitaldian 173 milioiko inbertsioa hartzen du.

Obra espedientea 1998ko maiatzean hasi zen eta obra lehiaketa bidez adjudikatzeko kontratua 1998ko azaroaren 13an izenpetu zen, 266,3 milioi pezetako zenbatekoarekin.

Ondoren, 1999ko apirilaren 23an, kontratua adostasunez amaiarazi zen, zimenduetan sortu ziren arazo larriei aurre egiteko soluzio teknikoaren balorazio ekonomikoetan bat ez etortzeagatik; adjudikatzeko prozesu berriari ekin zitzaion orduan, lehendabiziko lizitazioan adjudikazio hartzaileak izan ez ziren enpresekin, lehengoaren baldintza berberekin.

1999ko maiatzaren 24an beste kontratu bat izenpetu zen, 270,7 milioikoa, eta horri gehitu

behar zaio 19,5 milioiko zenbatekoa, prezioak gaurkotzearena, eta 10,6ko beste bat, kontraesanezko prezioena.

Enpresa adjudikazio hartzaileak ordainketen etendura egiteak eragindako arazoak izan ondoren, 2001eko ekainaren 15ean izenpetu zen obrak behin-behinekoz onesteko akta, aurreikusitako data baino bost hilabete beranduago eta 352 milioiko zenbatekoarekin, hau da, adjudikaturiko prezioa baino ehuneko 17 garestiago, udalak prezio eta epe aldaketak formalizatu gabe.

1998ko abuztura arte indarra izan zuen Kontratuari buruzko Foru Legeak ez zuen lurren azterlan geoteknikorik eskatzen, baina horren bidez antzeman zitezkeen zimenduetan sortu ziren arazoak.

- *Gure gomendioa da araudiari jarraikiz betetzea kontratuen aldaketa oro.*

#### VI.7. ZUZENeko ETA ZEHARKAKO ZERGEN ONDORIOZKO DIRUSARRERAK

Zizurko Udalak zuzeneko zergen bidez jasotzen dituen dirusarrerek 198 milioi pezeta egiten dute, hau da, ehuneko 100eko betetze-maila, eta Udalaren aitorturiko eskubide guztien ehuneko 26 da. Hori.

Aurreko ekitaldiarekin alderaturik ehuneko 33,5eko igoera izan dute, eta hala islatzen da hiri kontribuzioan (ehuneko 30eko igoera), zirkulazioaren gaineko zergen (ehuneko 18), lurren balio gehikuntzaren gaineko zergen (ehuneko 118) eta jarduera ekonomikoaren gaineko zergen (ehuneko 12ko igoera).

Kobrantsen ehunekoari dagokionez, kapitulu guztirako ehuneko 82koa izan da, eta nabarmendu behar da lurren balio gehikuntzaren gaineko zergen aitorturiko eskubideen ehuneko 54 dagoe-la ordaintzeko.

Hona kapituluaren zehaztapena:

	Kopurua milioitan	%, guztiaren gainekoa
Landalur-kontribuzioa	0,4	0,19%
Hirilur-kontribuzioa	102,6	52%
Zirkulazioaren gaineko zerga	43,4	22%
Lurren balio-gehikuntzari buruzkoa	32,2	16%
Jarduera ekonomikoaren gaineko zerga	19,4	10%
Guztira	198	100

Arlo honetan eginiko lanaren arabera, ekitaldi-ko dirusarreren aurrekontuko zifrak arrazoizkoak direla iruditzen zaigu. Halere, gure azterketaren

ondorioz uste dugu zuzeneko zergen arloaren kontrola eta kudeaketa hobetu daitekeela zenbait alderditan, eta horrexegatik egiten ditugu gomendio hauek:

- *Zuzeneko zergen bidezko dirusarreraren prozedura berraztertzea, diru bilketa eta kontabilitate departamentuen arteko koordinazio egokia izan dadin ziurtatzeko, lanak ez bikoizteko eta bermatzeko bi departamentuetako zifrak bat etortzea kobrantzei eta kobratzeko dauden zenbatekoei dagokienez, eta kontabilizazioa eta erregistroa bi departamentuetan atzerapenik gabe egiteko.*

- *Kobratzeko borondatezko epea ahiturik, pre-miamenduzko erreargua eskatzea eta agentzia betearazlearen esku uzteko epeak finkatzea.*

Zeharkako zergen bidezko kapituluak 28,5 milioi pezetako aitorturiko eskubideak dauzka eta betetze-maila ehuneko 28koa da.

Eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga hartzen du, eta betetze-maila hain txikia izatearen arrazoia da 2000ko ekitaldian ez zela ia egin hirigintza lizentzia behar zuen obrarik, zerga ordainarazteko baldintza horixe baita.

Zergaren kontrol eta kudeaketa prozedurak aztertutik, gure ustez arrazoizkoak dira, baita dirusarreraren aurrekontuan kontabilizaturiko zenbatekoak ere.

Ondotik ematen ditugu aztertutako zerga motetan udalak aplikatzen dituen tasak, Toki ogasunei buruzko Legean ezarritako mugekin alderaturik.

#### 2000ko tasa

	UDALA	TOFL
Landa-lur kontribuzioa	% 0,5160	01etik 0,8ra bitarte
Hiri-lur kontribuzioa	% 0,1748	0,1etik 0,5era bitarte
E.I.O.Z.	% 5,0	% 2tik 5era bitarte
Lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga		
Urte 1etik 5era	% 2,7	2,6tik 3,6ra bitarte
10 urte bitarte	% 2,7	2,3tik 3,5era bitarte
15 urte bitarte	% 2,5	2,1etik 3,4ra bitarte
20 urte bitarte	% 2,5	2,1etik 3,4ra bitarte
Karga tasa	% 11,0	% 8tik 20ra bitarte

#### VI.8. TASAK ETA BESTELAKO DIRUSARRERAK.

Kapitulu honetan, aitorturiko eskubideek 137,1 milioi egiten dute eta haien betetze-maila ehuneko 97koa izan da; 1999an 82 milioi egin zuten.

	Aitorturiko eskubideak (pezetatan)
Kirol instalazioetako txartelak eta beste	108.400
Lanak, fotokopiak eta beste	213.216
Etxeko laguntza	741.339
Kirol instalazioetako abonatuaren kuotak	100.839.056
Hilerriko tasak	626.485
Jarduera lizentziak/ eskualdaketa lizentziak	1.285.000
Hirigintzako lizentziak eta bestelako jarduketak	3.086.772
Hesiak, aldamiok, prezio publikoa	809.880
Mahaiak eta aulkiak prezio publikoa	789.800
Kaleko industriak eta herriz herrikoak	474.055

Ustiaketa enpresak, gasa, Telefónica, Iberdrola	12.710.647
Aparkalekuetako pasabideak	11.836.500
Balkoiak, terrazak ixtea	34.645
Aurrekontu itxietako itzulketak	1.266.888
Isunak eta zehapenak	286.000
Exekuzio bidezko kobrantzak errekargua eta gastuak	2.038.163
<b>3. kapitulua, guztira</b>	<b>137.146.846</b>

Ikusten dugunez, dirusarrera gehienak kirol instalazioen abonatuaren kuotatik heldu direnez, gure azterketaren xedea abonatu horiek izan dira, bai eta pasabideen gaineko tasetan, batera hartuta kapitulu osoaren ehuneko 82 egiten baitute.

Arlo horretan eginiko lanari jarraikiz, gure ustez kontrol eta kudeaketa prozedurak egokiak dira. Hala ere, honako gomendio hauek egin ditugu:

- *Tasa eta prezioen kontabilitateko eragiketak hobetzea kobraturiko zenbatekoen eta kobratzeko daudenen aldirako koadratzeak eta egiaztatzeak eginez eta ekitaldiaren amaieran eragiketak modu egokian moztea.*

- *Kirol instalazioen dirusarrerak patronatuari egozte.*

- *Aldizka, kostuen gaineko azterlan bat egitea zerbitzuetako tasa eta prezioen euskarri gisa.*

#### VI.9. DIRUSARRERAK, TRANSFERENTZIA ARRUNTAK.

Kapitulu honek 397,2 milioi pezetako aitorturiko eskubideak dauzka eta betetze-maila ehuneko 99koa da.

Hona betetzea, kapituluz kapitulu zehazturik:

	Milioiak
Estatuaren transferentziak	2,3
Nafarroako Gobernuaren transferentziak	393,5
Zizur Zendearekin izenpeturiko hitzarmena	1,4
<b>Guztira</b>	<b>397,2</b>

Ikusten denez, ia dena Nafarroako Gobernuaren transferentzietan dagokie.

Kontzepturik garrantzikoena toki ogasunen funtseko partaidetza da. 333,6 milioi eta oinarritzko gizarte zerbitzuetarako dirulaguntzak, 15,1 milioi eta zenbateko txikiagoko beste batzuk.

Arlo honetan eginiko lanaren arabera, gure ustez kontzeptu hauetan aurrekontuko dirusarrera gisa aitorturiko zifrak arrazoizkoak dira eta behar bezala daude kontabilizaturik.

#### VI.10. ONDARE DIRUSARRERAK.

Kontzeptu honek 6,3 milioi pezetako aitorturiko dirusarrerak ditu, honelaxe zehazturik:

	Pezetak, milioitan
Gordailuen interesen ondoriozko dirusarrerak	4,5
Errentan emandako aparkalekuak	0,8
Bestelako errentamenduak	1
<b>Guztira</b>	<b>6,3</b>

Kontzeptu horretan erregistraturiko zifrak arrazoizkoak dira eta behar bezala erregistraturik daude. Hala ere, honako gomendio hauek egin ditugu:

- *Aparkalekuak errentan hartzen dituztenekin kontratuak izenpetzea.*

#### EGOERA-BALANTZEA

#### VI.11. IBILGETUA

Aurreko ekitaldiarekin alderaturik, 1.867 milioi-ko doikuntza izan du, aurreko urtean 759 milioiko saldo negatiboa zuen lurren kontuan gertatua gehien bat.

Saldo negatibo hori gertatu zen azken ekitaldietako lurren salmentak kontu horretan salneurriaren arabera kontabilizatu direlako, inbentarioan kostuaren prezioaren arabera erregistraturik bazeuden ere, logikoa den bezala.

Udalak ez du ondasunen inbentario gaurkoturik; eginiko azkena 1995ekoa da, eta ordutik ez da gaurkotu.

*Udalaren ondasunen inbentarioa egitea gomendatzen dugu, bai eta haren jarraipena ere ondoren, altak eta bajak inbentariaturiko ondasunen kontabilitate prezioaren arabera agerrarazteko; koadratzea eta kontabilitate saldoekin ere lotzea da gure gomendia.*



## VI.12. ZORDUNAK.

Zordunen saldoek 2000/12/31n 143,8 milioi egiten dute. Hona xehetasunak:

Kontzeptua	2000-12-31ko saldoa
Aitorturiko eskubideen zordunak	133,5
Entitate publikoak (BEZ)	0,5
Aurrekontuz kanpoko beste zordun batzuk	9,8
<b>Guztira</b>	<b>143,8</b>

Dirubilketa eta kontabilitate departamentuen artean dagoen koordinazio faltak, zuzeneko zergen atalean aipatu dugunak, aurrekontuko zifren, balantzearen eta euskarriko zerrenden artean aldeak izatea eragiten du.

Arazo bera gertatzen da Udalak kontrataturiko agentzia betearazlearen esku dauden zordunen saldoekin.

*Gure gomendioa da agentzia betearazlearen esku dauden zordunen eta zorren saldoak aztertu eta garbitzea, aurrekontuko zifrak, balantzea eta zordunen izen zerrendak koadratzearen.*

## VI.13. FINANTZA KONTUAK

221 milioiko saldoa du eta, batez ere, bankuetan eta kreditu erakundeetan eskura dauden funtsak hartzen ditu.

Finantza kontuen kontabilitate saldoak arrazoizkoak dira, baina:

*Gure gomendioa da Udalaren kutxako kontua erregularizatzea, dagoeneko jardunean ez bada-go ere balantzean ageri baita saldo txiki batekin.*

## VI.14. EPE LABURREKO ZORRAK.

155,5 milioiko saldoa du. Hona xehetasunak:

	2000-12-31ko saldoa
Aitorturiko betebeharren hartzekodunak	123,7
Entitate publikoak	9,6
Aurrekontukoak ez diren bestelako hartzekodunak	22,2
<b>Guztira</b>	<b>155,5</b>

Balantzearen arlo honetan eginiko lanaren ondorioz, gure ustez epe laburreko zor gisa islatutako saldoak arrazoizkoak dira. Halere, badago alderik euskarri dokumentalek diotenaren eta kontabilitateko saldoetan ageri denaren artean, baina

ez da saldo globaletan aldaketa eragiteko adina-koa.

*Gure gomendioa da epe laburreko zorren kontabilitateko saldoak aztertu eta garbitzea, eta udalaren zor erreala agerian uzteko behar diren doikuntzak egitea.*

## VI.15. APLIKATZEKO DAUDEN KONTUSAILAK

1.386 milioiko saldoa du eta nagusiki "lurrak" izeneko ibilgetuko kontuetan eginiko kontabilitateko gehikuntzaren kontrakontua biltzen du. Ibilgetuaren atalean aipatu dugu dagoeneko gehikuntza hori.

## VI.16. HIRIGINTZA

Egun Zizur Nagusian dagoen hirigintza planak indarra du 1986az geroztik eta 1995ean onetsi zen behin betikoz haren aldaketa bat.

1995ean aldatutako plana ia osaturik dago eta aurreikusiriko etxebizitzak eraikirik edo eraikitzeko fasean.

1995eko planak 4.261 etxebizitza aurreikusten zuen guztira. Hona egoera 2002ko urtarrilean:

Eraikitako etxebizitzak	4.046
Eraikitzen ari direnak	82
Lizentziarik gabe	133
<b>Guztira</b>	<b>4.261</b>

Babes ofizialeko etxebizitzaren kopurua ehuneko 50etik gorakoa da. Hona, beraz, egoera:

	Etxebizitza kopurua.	Guztizkoaren gaineko %
Etxebizitza libreak	2.076	49
Babes ofizialeko etxebizitzak	2.185	51
<b>Guztira</b>	<b>4.261</b>	<b>100</b>

2000ko irailaren 29an eginiko Osoko Bilkurak hala erabakita, HAPOn beste aldaketa bat erredaktatzeko enkargua egin da. Aldatzeko proiektu horren lehen fasea da plan indardunaren gaineko informazioa eskuratzea eta aurretiazko azterlanak, hirigintzako diagnosia eta aldaketaren premiaren justifikazioa egitea, eta hirigintza garapenerako balizko eszenatoki, hipotesi edo hautabide multzo bat eskaintzea, hala nola, hazkunde indizearen norainokoa, balizko jarduera motak eta intentsitatea, dauden azpiegituren ahalmena, instalazio berrien beharra, dauden zerbitzuen eta ekipamenduen egokitzapena etab.

Aldatzeko proiektuaren erredakzioa atzeraturik dago lehiaketa adjudikatzeko aurreikusi zen egutegiaren aldean, hazkunde eta garapenerako alternatibaren artean hautaketa egiteko erabaki politikoak hartu behar direlako aldezturik.

## VII. ERAKUNDE AUTONOMOEI BURUZKO IRUZKINAK, ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK

### MUSIKA ESKOLAREN PATRONATUA

Musika Patronatua, musika eskola sortu, sustatu, bultzatu eta kudeatzeko Zizur Nagusiko Udalak sortutako erakunde autonomoa da. 1985ean sortu zen eta haren estatutuak 1995ean gaurkotu eta onetsi zituen udalaren osoko bilkurak.

2000ko aurrekontuak Patronatuaren Batzarrak onartu zituen, eta ondoren Udalaren osoko bilkurak 1999ko azaroan.

Gastu eta dirusarreraren aurrekontuaren betetze maila % 45,2koa eta % 45,7koa da, hurrenez hurren; V.2 epigrafean, finantza egoera-orriei buruzkoan, ikusi daiteke zehazturik.

Musika eskolaren gastuen egoera-orriak ez ditu hartzen osotara haren gastuak. Ondasun arruntan eta zerbitzuen zenbait gastu, hala nola, bulegoko materiala, eraikin eta ekipoen konponketa, argia, gasa, telefonoa eta zerbitzu informatikoaren kuota, Udalaren aurrekontuan kontabilizatu dira, 2,2 milioiko zenbatekoarekin.

Patronatuko langile gehienak egoera irregularran daude, kontratazioa lehia eta publizitatearen printzipioak bete gabe egin baitzen, eta horixe bera azpimarratu genuen aurreko txostenean ere.

Gastuen eta dirusarrerak agertzen dituzten dokumentuak izenpetu gabe daude eta beraz ez dago inon adierazirik aldatzea.

### KIROL PATRONATUA

“Ardoi” Kirol Patronatua, kirol jarduerak eta jarduera fisikoak sustatzeko eta horietan aritzeko Zizur Nagusiko Udalak sortutako erakunde autonomoa da. 1985ean sortu zen, eta urte berean onetsi ziren haren estatutuak.

2000ko aurrekontuak Patronatuaren Batzarrak onartu zituen, eta ondoren Udalaren osoko bilkurak 1999ko abenduan.

Gastu eta dirusarreraren aurrekontuaren betetze maila 40,2 eta 45,4 milioikoa da, hurrenez hurren; V.2 epigrafean, finantza egoera-orriei buruzkoan, ikusi daiteke zehazturik.

Aurrekontuak ez ditu osotara agertzen Patronatuaren gastuak eta dirusarrerak, langileria gastuak eta zenbait erosketa eta inbertsio Udalaren

kontuetan kontabilizatu direlako zuzenean, 97 milioiko zenbatekoarekin. Dirusarrerei dagokienez, kirol instalazioak erabiltzeko kuotetatik heldu direnak ere, 101 milioi egiten dutenak, Udalaren kontuetan erregistratu dira.

Kirol patronatuak ez du langilerik atxikirik.

Ez zaie atxikipenik ezarri kirol jarduerak egiteko kontraturik dauden profesionaletako batzuei, baina zenbatekoak ez dira handiak.

### KULTUR PATRONATUA

Kultur Patronatua, kultura jarduerak sustatu eta gauzatzeko Zizur Nagusiko Udalak sortutako erakunde autonomoa da. 1994an sortu zen, eta urte berean onetsi ziren haren estatutuak.

2000ko aurrekontuak Patronatuaren Batzarrak onetsi zituen, eta ondoren Udalaren Osoko Bilkurak, 1999ko abenduan.

Gastu eta dirusarreraren aurrekontuaren betetze maila % 45,7koa eta % 51,3koa da, hurrenez hurren; V.2 epigrafean, finantza egoera-orriei buruzkoan, zehazturik ikusi daiteke.

Aurrekontuaren betetze-maila horrek ez ditu osotara agertzen Patronatuaren gastuak, langileria gastuak eta kultura etxearen gastuak (26 milioi) udalaren kontuetan kontabilizatu direlako zuzenean.

Kultur patronatuak ez du langilerik atxikirik.

Ez zaie atxikipenik ezarri ikastaroak egiteko kontraturik dauden profesionaletako batzuei, baina zenbatekoak ez dira handiak.

Oro har, hiru patronatuetan komunak dira inguruabar hauek:

- Udalak 2000ko ekitaldian kontu-hartzailerik ez zuenez, ez da egin hiru erakunde horien gaineko kontu-hartzerik.

- Guk dakigula ez dago ondasun inbentario gaurkoturik.

- Bankuko funtsez baliatzeko bi sinadura behar dira, baina bietako bat zigilu baten bidez ematen da eta, beraz ez du kontrolerako baliorik.

- Patronatuek ez dituzte atxikirik haien jarduera betetzeko behar dituzten ondasun higigarriak eta higiezinak.

Aurreko epigrafeetan musika, kultura eta kirol patronatuei buruz eginiko azterketa eta iruzkinen arabera, hona gure gomendioak:

- *Zerbitzu horiek emateko modua, alegia, erakunde autonomoen bidez, berraztertu eta jarduera*

*horiek udalaren beraren organigramaren eta egituraren barrenean sartzea.*

- *Nolanahi ere, egungo antolamenduari eutsiz gero, erakunde autonomo diren aldetik beren jarduerari dagozkien gastu eta dirusarrera guztiak hartu beharko dituzte bere gain eta beren helburuak betetzeko behar dituzten ondasun higigarriak eta higiezinak, eta langileak, atxiki beharko zaizkie.*


- *Udalak kontu-hartzailletza lana betetzea, eta ziurtatzea bereziki dirusarreraren eta gastuen kontabilitateko dokumentu guztiek Udalaren ikus-one-*

*tsia dutela, kontratuak formalizatzen direla, langileak kontratatzean lehia eta publizitate printzipioak eta zerga betebeharrak betetzen direla eta bankuko funtsez baliatzeko modua eta ondasunen inbentarioa behar bezala kontrolatzea.*

Francisco Javier Sesma Masa auditore jauna arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarreko araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2002ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

**1. eranskina: Udalaren eta haren erakunde autonomoen organigrama 2000ko abenduaren 31n**

Plantilla	Guztira	Hutsak
Funtzionarioak	18	5
Lan-kontratadun langileak	52	8

(\*) Langile horiek ez daude udaleko plantilla organikoan sarturik.

**II. ERANSKINA. ERABILITAKO ADIERAZLEEN DEFINIZIOA**

- Diru-sarreraren betetze-maila =  $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Gastuen betetze-maila =  $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Behin betiko aurrekontua}} \times 100$
- Kobrantzen betetzea =  $\frac{\text{Kobrantzak, guztira}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Ordainketen betetzea =  $\frac{\text{Ordainketak, guztira}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Zorpetze-maila =  $\frac{\text{Finantza-zama (3. eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak (1-5 kapit.)}} \times 100$
- Zorpetze-muga =  $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. gastuak (1,2 eta 4. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Zorpetze-ahalmena = Muga- zorpetze-maila
- Aurrezki garbia =  $\frac{\text{Diru-sarr. arr. (1-5 kapit.) - Funtzion. eta finan. gastuak (1- 4 eta 9. kapit.)}}{\text{Diru-sarrera arruntak}} \times 100$
- Langileria indizea =  $\frac{\text{Langileen aitorturiko betebeharrak}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Inbertsio-indizea =  $\frac{\text{Inbertsio gastuak (6 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}} \times 100$
- Diru-laguntzekiko menpekotasuna =  $\frac{\text{Transferentziengatik aitorturiko eskubideak (4 eta 7. kapit.)}}{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}} \times 100$
- Diru-sarrerak biztanle bakoitzeko =  $\frac{\text{Aitorturiko eskubideak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastuak biztanle bakoitzeko =  $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak, guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Gastu arruntak biztanle bakoitzekoko =  $\frac{\text{Aitorturiko betebeharrak (1-4 kapit.), guztira}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko =  $\frac{\text{Tributu bidezko diru-sarrerak (1, 2 eta 3. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$
- Finantza-zama biztanle bakoitzeko =  $\frac{\text{Finantza-zamak (3 eta 9. kapit.)}}{\text{Eskubidedun biztanleak}}$

**ZIZUR NAGUSIKO ALKATEAK AURKEZTU-RIKO ALEGAZIOAK**

"Nafarroako Kontuen Ganbarako lehendakariak 2000ko apirilaren 10ean bidalitako erabakia jaso dugu. Haren bidez, Zizur Nagusiko Udalaren behin-behineko fiskalizazio-txostena (2000ko ekitaldia) onetsi eta igorri zen, aztertze eta alegazioak, baleude, aurkezteko.

Honen bidez, alkateak ADIERAZTEN DU:

Lehena. Behin-behineko txosten horren edukiaz jakitun naiz eta arloetako udal arduradunei gomendioen berri emanen diet, azter ditzaten eta, ahal den neurrian ezar ditzaten.

Bigarrena. Behin-behineko txostenaren IV.7 epigrafean ageri denez, laburpen eta ondorio orokorra da Zizur Nagusiko Udalak behar duena dela antolamenduan kontu-hartzailearen lanpostua sartzea, eta horren ondorio zuzena izan diren beste jarduketak batzuk. Hori zuzena izanik ere, alegazio gisa adierazi nahi dut Zizur Nagusiko Udalak eman dioela dagoeneko tratamendua afera horri.

Izan ere, Zizur Nagusiko Udalak 2000ko maiatzaren 26an eginiko bilkuran erabaki zuen berrestea Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Departamentuaren eta Zizur Nagusiko Udalaren arteko kudeatzeko agindurako hitzarmenaren onarpena, bitarteko kontrataziorako izangaien zerrenda bat egin eta kudeatzeko, hitzarmen horretan aurreikusitako kasuetan idazkari eta kontu-hartzaile lanpostuak betetzeko helburuarekin.

2000ko abuztuaren 11n izenpetu zen aurreko lerrokadan aipatutako hitzarmena.

2001eko urriaren 23an, Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Departamentuak erantzun zion Zizur Nagusiko kontu-hartzaile lanpostua aldi baterako betetzeko pertsona bat izenda dezan egindako eskaerari, esanez artean ez zegoela tramitaturik izendapen hori egin ahal izateko deialdia.

Zizur Nagusiko Udalak, 2001eko urriaren 26an eginiko Osoko Bilkuran, erabaki zuen kontu-hartzaile eta diruzain lanpostua bitarteko izaeraz betetzeko deialdia egitea.

Hasiera batean, deialdia Zizur Nagusiko Udaleko gobernu batzordeak onetsi zuen 2001eko azaroaren 23an. Ondoren, deialdia aldatu behar izan zen, Zizur Nagusiko Udaleko gobernu batzordeak 2002ko urtarrilaren 4an hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Departamentuko Idazkaritza Teknikoak eginiko errekerimenduaren ondorioz. Ondoren, deialdia berriz aldatu zen, Zizur Nagusiko Udaleko gobernu batzordeak 2002ko urtarrilaren 4an hartutako erabakiaren bidez, deialdiaren kontra aurkezturiko berraztertze errekurtso bat baietsi baitzen.

Egun, hauxe da deialdiaren egoera: onartu eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda argitaraturik dago (2002ko apirilaren 10eko 44. NAO) eta bi hilabeteren buruan, gutxi gorabehera, lanpostua beterik egonen delakoan gaude.

Azalpen zehatz hori eman dugu erakustearren zergatik ez duen oraindik bete Zizur Nagusiko Udalak kontu-hartzaile lanpostua; alegia, bidean agerturiko zorigaiztoko ustekabeek galarazi dutelako, Udalaren borondatearen kontra.

Hirugarrena. Behin-behineko fiskalizazio txostena egiten parte hartu duten guztiei eskerrak ematen diet.

Hori guztia jakinarazten dizut behar diren ondorioak sor ditzan.

Zizur Nagusian, 2000ko apirilaren 17an

Alkatea

**ZIZUR NAGUSIKO ALKATEAK AURKEZTU DITUEN ALEGAZIOEI KONTU GANBARAK EMAN DIEN ERANTZUNA.**

Zizur Nagusiko alkateak aurkeztu dituen alegazioei Kontu Ganbarak eman dien erantzuna.

Zizur Nagusiko Udalar buruzko behin-behineko fiskalizazio txostenari (2000ko ekitaldia) aurkezturiko alegazioak jaso ondoren, behin betikotzat jo da txostena aurkeztutako alegazioekin.

Iruñean, 2002ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde



NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

HARPIDETZAREN PREZIOA

ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA

Urte bat .....	39,07	euro
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa .....	0,96	»
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa .....	1,14	»

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* .....

*Hiria* .....

*P. K.* .....

*Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan

